

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y  
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

**DESARROLLO RURAL Y MEDIO  
AMBIENTE**ASUNTOS SOCIALES FAMILIA  
JUVENTUD Y DEPORTE

CULTURA Y TURISMO

OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y  
COMUNICACIONESVIVIENDA Y ORDENACION DEL  
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Ingurumen Departamentuak amuarraina arrantzatzeko 1.247 baimen eman ditu eskaera epearen lehenengo egunean

*Baimenak izokin inguruko arroetarako dira, han arrantza debekatuta egon da azken hiru kanpainetan*

Martes, 05 de abril de 2011

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak joan den astelehenean, apirilaren 4an, 1.247 baimen eman zituen izokin inguruan amuarraina arrantzatzeko. Horrek zera esan nahi du, eskaera epea hasi zen lehenengo egunean eskura daitezkeen 27.996 baimenen % 4,45 banatu zirela.

Baimen berezi horrek erabiltzaileari, egun batez eta Nafarroako iparraldeko izokin inguruko tarte zehatz batean, amuarraina arrantzatzeko aukera ematen dio. Ingurumen Departamentuak bost baimen eman ahal izango dizkio behar bezalako lizentzia duen arrantzale bakoitzari. Baimen horiek doakoak, pertsonalak eta besterendu ezinekoak dira.

Baimenak pixkanaka eta ibaiaren tarte bakoitzak eskaintzen dituen aukeren arabera ematen dira. Apirilaren 4tik 10era baimenak eskatzeko epea zabalik egongo da. Apirilaren 11tik 25era bi baimen gehiago eskatu ahal izango dira eta, azkenik, apirilaren 26tik aurrera gainerako beste bi baimenak aktibatuko dira arrantzale bakoitzarentzat gehienez eskaintzen diren bost baimenak lortu arte. Baimenak [www.permisopesca.navarra.es](http://www.permisopesca.navarra.es) webgunean edo Infonavarraren 012 telefonora deituz eska daitezke. Inguru horretako arrantzarako denboraldia maiatzaren 1etik ekainaren 30era arte izango da.

Arrantzarako sistema jasangarria ezarri delako eman dira baimen berezi horiek. Sistema hori 2011ko kanpainaren berritasun nagusia da eta, horri esker, izokin inguruan zegoen debekua kendu da azken hiru kanpainetan inguru horretan arrantzan egitea galazota egon ondoren. Sistemak, baimenen bidez, ibaira joaten diren arrantzale kopurua arautzeko aukera ematen du; hala, amuarrain kopurua hangiagoa den lekuetan arrantzale gehiago egongo dira eta amuarrain kopurua urria denetan arrantzaileena ere murriztuko da.

### Eskaera egiteko epearen lehenengo eguna

Apirilaren 4ko goizeko 8:00etatik apirilaren 5eko ordu berdinera arte 1.247 baimen eman ziren: baimen horietatik 909 Internet bidez eskatu ziren [www.permisopesca.navarra.es](http://www.permisopesca.navarra.es) webgunean eta 338 Infonavarraren 012 telefono zenbakira deituta.

Eskatzaileen % 67k larubatak edo jaiegunak aukeratu dituzte arrantzan egitera joateko eta gehiengo handiak denboraldiko lehen

egunak. Eskatzaileen artean ia heren batek lehenengo egun balioduna aukeratu du (maiatzak 1) eta % 94k maiatzeko egun bat. Edonola ere, oraindik arro guztietarako eta egun guztietarako baimenak geratzen dira, Ega-Urederrako arrorako izan ezik. Arro horretan maiatzaren 1erako zeuden 51 baimenak agortu dira.

Lehenengo egunean arrantzarako eskatu diren baimenak ondoko arroetan banatuta:

Arakil/Larraun	80 baimen	% 6,4
Arga/Ultzama	69 baimen	% 5,5
Baztan/Bidasoa	490 baimen	% 39,3
Ega/Urederra	171 baimen	% 13,7
Irati/Erro	399 baimen	% 32,0
Oria/Urumea	38 baimen	% 3,0

Baztan/Bidasoa eta Irati/Erro arroetan arrantzatzekeo baimenak izan dira gehien eskatu direnak, baina baimen gehien dituzten arroak ere badira: 9.724 eta 6.864 baimen dituzte, hurrenez hurren. Arroan arrantzan egiteko baimenak eskatu dituztenetatik 196 bakarrik bizi dira arroan. Erriberako arrantzaleek baimenen % 20 erreserbatu dute denboraldirako.